

BESTELAKO XEDAPENAK

LEHENDAKARITZA

2656

EBAZPENA, 2025eko maiatzaren 30ekoa, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendariarena, zeinaren bidez deklaritzen baita Construcciones Otegi Gaztañaga SL entitatearen «Emakumeen eta Gizonen Aukera Berdintasunerako Lankidetza Erakundea» aitorpenaren indarraldi-galtzea.

Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendariaren 2025eko martxoaren 12ko Ebazpenaren bidez, Construcciones Otegi Gaztañaga SL entitatearen «Emakumeen eta Gizonen Aukera Berdintasunerako Lankidetza Erakundea» aitorpena errebokatzekeo prozedura hasi zen, eta orain aitorpen hori erregulatzen duen 11/2014 Dekretuaren 15. artikuluan ezarritako prozedurari jarraitzea dagokio.

AURREKARIAK

Lehenengoa.– Otsailaren 11ko 11/2014 Dekretuaren bidez, Emakumeen eta Gizonen Aukera Berdintasunerako Lankidetza Erakundearen aitorpena arautu zen. Horren xedea izan zen emakumezkoen eta gizonezkoen arteko berdintasuna dakarten egoerak sustatzea eta berdintasun hori eragozten duten oztopoak kentzea, gizarte- eta lan-arloan, emakumezkoen eta gizonezkoen arteko aukera- eta tratu-berdintasunaren alde sortzen diren ekimenak sustatuta; eta, horrekin batera, entitateek arlo horretan egiten duten lana aintzatestea.

Bigarrena.– Construcciones Otegi Gaztañaga SL entitateak hainbat dokumentu aurkeztu zituen Emakumeen eta Gizonen Aukera Berdintasunerako Lankidetza Erakundearen aitorpena lortzeko. Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendariaren 2015eko uztailaren 16ko Ebazpenaren bidez (EHAA, abuztuaren 25ekoa; 160zk.), izaera hori aitortu zitzaion, dokumentazio osoa aztertu ondoren.

Hirugarrena.– Construcciones Otegi Gaztañaga SL entitateak ez zituen epearen barruan aurkeztu ez jarraipen-txostenak, azken urteetan martxan jarritako ekintzei eta horiek Egoeraren Diagnostikoaren adierazleetan izandako ondorioei buruzkoak, ez ondorengo jarduketa-planak, Emakumeen eta Gizonen Aukera Berdintasunerako Lankidetza Erakundearen aitorpena arautzen duen otsailaren 11ko 11/2014 Dekretuaren 14. artikuluan ezartzen direnak.

Construcciones Otegi Gaztañaga SL entitateak epez kanpo bidali zuen dokumentazioa, Emakundek 2024ko uztailaren 4an helarazitako errekerimenduaren ostean.

Laugarrena.– Aurreko zenbakian aipaturiko ez-betetzearen ondorioz, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendariak ebazpen bat eman zuen 2015eko martxoaren 12an, eta, horren bidez, hasiera eman zitzaion Construcciones Otegi Gaztañaga SL entitateari emandako Emakumeen eta Gizonen Aukera Berdintasunerako Lankidetza Erakundearen aitorpena errebokatzekeo prozedurari.

Bosgarrena.– 2025eko apirilaren 3an, Construcciones Otegi Gaztañaga SL entitateak alegazio-idazki bat aurkeztu zuen, Emakundek printzipio hauek urratu zituela adierazteko:

- Elkarrenganako konfiantza legitimoaren printzipioa.

– Administrazioa onaren printzipioa.

– Egintza propioen printzipioa.

Alegazio-idazkiaren eranskin gisa, Construcciones Otegi Gaztañaga SL entitateak dokumentazioa aurkeztu zuen egindako baieztapenak oinarritzeko.

Seigarrena.– Ikusirik aitorpena errebokatzeko prozedurari hasiera eman zion Ebazpena, eta azterturik Emakumeen eta Gizonen Aukera Berdintasunerako Lankidetzaren Erakundearen aitorpena arautzen duen otsailaren 11ko 11/2014 Dekretuaren 14. eta 15. artikulua, honako hauek aplikatzea dagokio:

ZUZENBIDE-OINARRIAK

Lehenen.– Aitorpenez arduratzeko eta errebokazio-prozedura hasi eta amaitzeko eskumena Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak zuzendariari dagokio, hala ezartzen dutenez Emakumeen eta Gizonen Aukera Berdintasunerako Lankidetzaren Erakundearen aitorpena arautzen duen otsailaren 11ko 11/2014 Dekretuaren 10. eta 15. artikuluek.

Bigarrena.– Construcciones Otegi Gaztañaga SL entitateak aurkezturiko alegazio-idazkian, adierazten da Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak egindako jakinarazpenak ez zeudela behar bezala eginda, Consultores de Empresa-CDE SLra bidali zirelako.

Construcciones Otegi Gaztañaga SL entitateak adierazi du aholkularitza horrekiko harremanak 2020an eten zirela. Ez da zalantzan jartzen harreman hori data horretan bukatu izana, baina, hala gertatu bazen, entitate laguntzaileak horren berri eman behar zion Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeari, une horretatik aurrera ordezkaririk gabe geratzen zela jakinaraziz.

Jakinarazteko betebeharrari buruz, alegazio-idazkian adierazten da administrazio onaren printzipioa urratu dela, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak ahalegin guztiak egin behar zituelako ebazpena Construcciones Otegi Gaztañaga SL entitateari jakinarazteko. Horretaz, berretsi behar dugu jakinarazpenak modu egokian egin zirela, entitate laguntzailearen ordezkaririk bezala agertzen zen sozietatera bidali baitziren.

Hirugarrena.– Konfiantza legitimoaren printzipioa urratzeari dagokionez, adierazi nahi dugu Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak lehen jarraipena aurkezteko gogorarazpen «estraofizial» bat bidali ziola, ez zuelako hori egiteko betebeharririk. Ezin da argumentatu bidalitako komunikazio horrek espektatibak sortu zituenik Construcciones Otegi Gaztañaga SL entitatean, zeina bai baitzegoen behartuta jarraipen-txostena aurkeztera, hala ezartzen baitu otsailaren 11ko 11/2014 Dekretuaren 14.2 artikulua.

Laugarrena.– Construcciones Otegi Gaztañaga SL entitateak alegazio-idazkian adierazten du, halaber, egintza propioen doktrina urratu dela. Zehazki, honela argudiatzen du: 2025ean aitorpenak indarrean jarraitzen duenez, COG SL-k ulertzen du 2020, 2022 eta 2024ko jarraipenetan ez dela errebokatu izan (...).

Are gehiago, honako hau adierazten du: egintza propioen doktrinaren arabera, modu jakin batean jardun duenak, egoera juridiko jakin bat sortuz, ezin du gero kontrara jokatu. Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak ezin da aurkago egon aipaturiko alegazio horiekin. Gai honi dagokionez, otsailaren 11ko 11/2014 Dekretuaren 15.2 artikulua f) apartatuak hauxe ezartzen du aitorpena errebokatzeko kasuetako bat bezala: «Aitorpena ematetik eratorriko betebeharrak bete gabe uzten badira larriki edo behin eta berriz». Alegazio-idazkian esaten denaren arabera, Construcciones Otegi Gaztañaga SL entitateak askotan ez du bete jarraipen-txostenak

aurkezteko betebeharra; horrek esan nahi du behin eta berriz urratu dituela aitordpena ematearen ondoriozko betebeharrak. Beraz, ez-betetze hori aitordpena errebokatzeke beste arrazoi bat da, eransten zaiena Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendariak 2025eko martxoaren 12an emandako Ebazpenean adierazitakoei, eta horiek guztiak Emakumeen eta Gizonen Aukera Berdintasunerako Lankidetzaren Erakundearen aitordpena errebokatzea inplikatzeko dute.

Bosgarrena.– Erakunde laguntzailearen aitordpena errebokatzekeko prozeduraren aurka egiteko aurkeztutako dokumentazioari dagokionez, hona kontsiderazio batzuk:

1.– Planetan diseinaturiko ekintzen exekuzio-mailari dagokionez, 2025eko martxoaren 12ko Ebazpenean adierazitakoa berresten dugu. Construcciones Otegi Gaztañaga SL entitateak egingandako alegazioak aztertuta, honako ondorioztatzen da: entitateak ezin izan du egiaztatu planetan diseinaturiko ekintzen % 70 baino handiagoko betetze-mailarik; ez da aurrerapenik gertatu diagnostikoan jasotako hasierako adierazleetan, ezta ondorioz ere jasotako neurrien ezarpenean. Era berean, ez dute gertatu diren ez-betetzeak justifikatzeko arrazoi objektiborik alegatu.

2.– Construcciones Otegi Gaztañaga SL entitateak ez du bete Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Lankidetzaren Erakundearen aitordpena arautzen duen otsailaren 11ko 11/2014 dekretuaren 14.1 artikulua.

Aitordpena iraunkorra da, baina emandako aitordpenak indarrean jarrai dezan lankidetzaren erakundeak emakumeen eta gizonen berdintasunaren aldeko ekintzak gauzatu jarraitzen duela egiaztatu behar dio Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeari, bi urtean behin. Construcciones Otegi Gaztañaga SL entitateak, ordea, ez du bete betebehar hori, eta, otsailaren 11ko 11/2014 dekretuaren 15.2 artikulua araberan, hori ez-betetze kasu bat da, aitordpenaren errebokatzea dakarrena.

2.– Otsailaren 11ko 11/2014 dekretuaren 14.4 artikulua araberan, plan bakoitzean zehaztutako indarraldia amaitzen denean, aitordpenarekin jarraitu ahal izateko, erakundeak honako hauek aurkeztu behar ditu: egoeraren diagnostiko eguneratua, berdintasunaren alorreko jardueraren plan berria, eta aurreko planen jasotako neurriak ezartzean eragindako ondorioei buruzko balioespena.

Construcciones Otegi Gaztañaga SL entitateak ez du bete aipaturiko artikulua ezartzen duen betebeharra, ez duelako aurkeztu jarduketaren plan berria.

Ez-egite hori ere aitordpena errebokatzeke kasuetako bat da. Zehazki, otsailaren 11ko 11/2014 Dekretuaren 15.2 artikulua a) apartatuko kasuarekin lotzen da: «jarduketaren plan berria ez bidaltzea aurreko plana bukatu ondoko urtearen barruan».

Seigarrena.– Otsailaren 11ko 11/2014 Dekretuaren 15. artikulua 3. apartatuan ezartzen denez, berdintasunaren alorreko aitordpena errebokatzeak «Emakumeen eta Gizonen Aukera Berdintasunerako Lankidetzaren Erakundea» aitordpenetik eratorritako ahalmenak galtzea ekarriko du (aipaturiko dekretuan arautuak).

Era berean, artikulua horren beraren laugarren apartatuak ezartzen duenez, aitordpena errebokatu zaion erakundeak ez du aitordpena eskatzerik izango 3 urtean.

Zazpigarrena.– Bat etorri otsailaren 11ko 11/2014 Dekretuaren 15. 1 artikuluan ezarritakoarekin, aitordpena errebokatzeke ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da.

Oinarri horiek eta oro har eta kasu honetan aplikatzekoak diren oinarriak ikusi ondoren, hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Deklaratzea Construcciones Otegi Gaztañaga SL entitateari emandako «Gizonen Aukera Berdintasunerako Lankidetzaren Erakundea» aitordpenaren indarraldi-galtzea, eta errebokatzekeko prozedurari ematera ematea.

Bigarrena.– Deklaratzea «Gizonen Aukera Berdintasunerako Lankidetzako Erakundea» aitortpenetik eratorritako ahalmenen galera, (otsailaren 11ko 11/2014 Dekretuaren 15. 1artikuluaren arautuak).

Hirugarrena.– Deklaratzea Construcciones Otegi Gaztañaga SL entitatearen «Gizonen Aukera Berdintasunerako Lankidetzako Erakundea» aitortpena eskatzeko gaitasunaren galera (3 urtez).

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA

Ebazpen honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beraren aurka, aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkez dakiok Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendariari, hilabeteko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; bestela, zuzenean, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hileko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA

Ebazpen honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko maiatzaren 30a.

Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen zuzendaria,
MIREN ELGARRESTA LARRABIDE.